

MOHAMED AHMED LAABEID PRESO ETA DESAGERTU SAHARAREN SENIDEEN ELKARTEKO ORDEZKARIA**DESAGERTUEN AUZIA**

«Senideek ez dakite deus haien gainean; oso larritasun handia dute, ezin handiagoa»

KARTZELA SEKRETUAK

«Kalaat Maguna legez kanpoko zen, gune turistiko baten azpi-azpian eraikia! Han, 322 desagertu zeuden»

ATERABIDE POLITIKOA

«Saharari aterabide egokia bilatzeko autodeterminazio erreferenduma egitea ezinbestekoa da»

Juanma Sarasola | DONOSTIA

Mohamed Ahmed Laabeid Preso eta Desagertu Sahararren Senideen Elkarteko ordezkaria Donostian izan da asteburuan, Udalbiltzak antolaturiko Herrien Eskubideen Aldeko Nazioarteko Konferentzian. EGUNKARIARI azaldu dionez, nazioarteko presioak asko egin dezake preso eta desagertuen alde. Egoera latza den arren, geroa itxaropentsu ikusten du berak.

■ Nola egiten du lan Afapredesa elkarteak?

Presoen eta desagertuen alorretan lan egiten dugu batez ere, baina baita giza eskubideekin lotutakoetan ere. 526 desagertu saharar daude; batzuek 27 urte daramatzate desagertuta.

■ Zertan da desagertuen auzia?

Senideek ez dakite deus haien gainean; oso larritasun handia dute, ezin handiagoa. Badira gazte batzuk, 30 urtekoak-eta, aita edo ama ikusi ez dutenak; emakume asko ezin dira dibortziatu, berriz ezkondu... 27 urte daramatzate ezinean, gure gizarteko moralak ez baitie uzten. Semea edo alaba ikusi gabe hil den amarik ere bada. Gu senideez arduratzen gara, babesa ematen diegu, kasuak segitzen ditugu, eta nazioarteko komunitatearen aurrean bozgorailu gisa jokatzeko dugu.

Kontuan izan behar da sahararrok Marokok okupaturako lurraldeetan eta [Aljeriako hegoaldeko] iheslari guneetan bizi garela. Lurralde okupatueta, duela bospasei urte arte senideek ezin zuten esan desagertu bat zutela, Marokok hori esate hutsa delitutzat jotzen baitzuen. Marokorentzat pertsona horiek inoiz ez dira existitu; mamuak dira. Gertatu izan da familian desagerturen bat duela esan edo salatu duen pertsona bat desagerraztea... Marokori ez zaio interesatzen gai hori azalera aterada.

■ Zer egiten duzue zuek?

Lurralde okupatueta isiltasun murreratu hori hausten saiatzen gara, eta beren eskubideak eskatzen animatzen ditugu familiak. Iheslari eremuetan adierazpen askatasuna dago, baina ez dago bitartekorik nazioarteko komunitateko erakundeekin harremanak egoki mantentzeko. Gu boluntario talde bat gara; gehienek desagerturen bat dugu. Familiei nazioarteko erakundeekin, NBE Nazio Batuen bortxazko desagertuenerako



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

«Ez dago familia bakar bat ere zapalkuntzak bortizki jo ez duenik»

Udalbiltzak gonbidatuta, Afapredesa Preso eta Desagertu Sahararren Senideen Elkarteko ordezkari Mohamed Ahmed Laabeid Donostian izan da, haien eta Sahararen egoeraz mintzatzeko.

departamenduen, giza eskubideetarako eta abarren berri ematen diegu. Orientabide bat eman eta bortxazko desagertuena nazioarteko delitua dela jakinarazten diegu. Zigorbetasunaren kontrako borroka eta ikerketa arloa jorratzen ditugu.

■ Salaketak nola bideratzen dituzue?

Marokok desagertuen gaia nola tratatzen duen ikusirik, geronek zerrenda eta espediente trinko eta oso zehatzak prestatu behar ditugu. Frankotan arazoak daude atxiloteta edo bahiketa zein tokitan edo nola gertatu den zehazteko. Gertatu izan da alde oso bat harrapatu izana ere, desertuaren erdian, lekukorik gabe. Orain, Genevan (Suitza), nazioarteko kanpaina bat du abian Saharan Giza Eskubideak Errespetatzeko Nazioarteko Bulego-

ak, 526 desagertuen kasuak argitzea exijitzeko eta senideetako elkartasuna bultzatzeko.

■ Kartzela sekretuak daudela diozue zuek. Azal diezazue zer dakizuen horretaz.

Isilpeko atxiloteta zentroak ditu Rabatek, Marokoko erdialdean eta hego-mendebaldean —Kalaat Magunako zentro ospetsua, kasu—. Kalaat Maguna legez kanpoko kartzela zen, gune turistiko baten azpi-azpian eraikia, basamortuaren erdian! Han, 322 desagertu zeuden, 17 urtetan atxiki zituztenak. Horietako 310 bizirik daude egun. Batzuk ustelduta hil ziren; beste batzuk, askatu eta hurrengo astera.

■ Nazioarteko kanpainei esker desagerturen bat agertu al da?

Bai. Nazioarteko presioa eta

kanpainak oso garrantzitsuak dira. 1989ko kanpaina bati esker izan genuen Kalaat Magunaren berri, eta presioari esker Marokoko Gobernuak han zeudenak askatu behar izan zituen. Oso lagungarria izan da desagertuen babesle sinbolikoaren figura ere; senideek debekatua dutenez edo baliabiderik ez dutenez, hainbat herritar europarrak desagertu baten ardura hartu eta hilero helbide instituzional batera —NBE, Europako Batasuna, Espainiako eta Marokoko Gobernuak... — salaketa postalak igortzen dituzte. Emaitza onak izan ditu.

■ Hitz egiguzu presoek.

Preso politikoen gaiak ere biziki kezkatzen gaitu. Bai Marokon eta bai Saharan, lurralde okupatueta, erabat debekatua eta jazarria dago Saharaz nazio eta,

are gehiago, estatu gisa hitz egitea. Autodeterminazioaren eta independentziaren alde zeinahi ekintza egitea galarazita dago. Halakorik edo okupazioaren aurka egiten duena atxilotzen dute marokorrek. Akusazio faltsuak egiten dituzte, eta tortura erabiltzen dute; duela gutxi, preso politikoa bat hil da torturen ondorioz.

■ Zenbat preso politiko saharar daude gaur egun?

Ez dakigu zehazki zenbat dauden; Espainiak utzitako *Kartzela Beltzean* 300 daudela badakigu. Etxola moduko bat da, 200 pertsonarentzat prestatua... Joan den martxoan preso bat itota hil zen, ziegetan ezin kabiturik baitaude. Guztira 450 bat preso egongo dira, eta sahararrak, gehien jota, 700.000 biztanle baino gutxiago gara... Ez dago familia bakar bat ere zapalkuntzak bortizki jo ez duenik, dela desagertuena bat, atxilotuena bat, hilketaren bat... Halere, presoei ez zaie aitortzen estatus politikoa.

■ Zer leporatzen zaie, bada?

Atxilotu politikoak droga kontuekin edo delitu arruntekin lotzen dituzte, eta, esate baterako, giza eskubideen aldeko ekintzaile bat epaiketara trafikatzailerako gisa aurkezten dute.

■ Zer espero duzue Espainiatik, kolonizatzaile ohiak?

Itxaropen handia dugu. Jarrera aldatu du, ez behar lukeen adina, baina zerbait aurreratu du Houstongo (AEB) Akordioaren inguruan eta sahararrei autodeterminazio eskubidea aitortzen. Espainiaren egitekoa funtsezkoa da, kolonizatzailea izan zelako eta Madrilgo Hiruko Akordioaren eragilea delako. 27 urtez egindakoaren ondoren modu aktiboagoan jokatu behar du; Portugalen kolonia ohiak —esaterako, Ekialdeko Timor— egindakoa, autodeterminazio eskubidea bultzatuz, eredu da.

■ Autodeterminazio erreferendumaren afera zertan da?

NBEko Segurtasun Kontseiluak ezin du ebazpen bat onartu eta gero urrats kontrajarriak egin. Autodeterminazio eskubidea Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasota dago! Saharako auziari aterabide egokia bilatzeko autodeterminazio erreferenduma ezinbestekoa da. Herri sahararri dagokio bere geroa erabakitzea.

■ Geroa nola ikusten duzu?

Itxaropentsu ikusten dut, egoera oso gogorra den arren.